



Eskualdea Aduna Andoain Asteasu Larraul Urnieta Villabona Zizurkil

Albisteak Agenda Argazkiak Zorion Agurrak Iritzia Inkesta Gure Gaiak Aldizkariak KMK12

ESKUALDEA 2014-01-15 17:29:02

"Gure sagardo berria" oihukatuz, denboraldi berriari ekin diote

2014an dastatuko dugun sagardoa lehorra, txinparta finekoa eta ahoan fruta freskoaren sentrazioa utziko diguna izango da.

Horiixe da adituek diotena, eta denera hamar milioi litro inguru sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian. Asteazkenean, urtarrilak 15, 2013ko uztaren eta sagardo berriaren ezaugarriak aurkeztu zituzten Astigarragako Sagardoetxea Museoan. Jarraian, Astigarragako Alorrenea sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu egin zuten Kalakan musika taldeko kideek. Amets Arzallus Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapeldunak eta Sustrai Colina bertsolariak ere ekitaldian parte hartu zuten.

Sagardoetxeak xehetasun handiz aurkeztu ditu iazko sagardoaren ezaugarriak. Hauexek:

SAGARDOA

"Uda amaierako hezetasunak sagarren elementu aromatikoaren kontzentrazioa egokia ahalbidetu du, zuku arinak eta freskagarriak lortuz. 2013ko uztak Euskal Herrian 10 milioi litro sagardo inguru ekoiztea ahalbidetu du, iazko antzeko kopurua". Dastaketa eta gero horrela deskribatu dute sagardoa:

- Hori-berdexka koloreko sagardoa.
- Uztaren hartzidura azkar eta erabatekoak, lehorra, txinparta finekoa eta ahoan fruitu freskoaren sentrazioa uzten duena.
- Sagardo orekatua, freskagarria eta arina.

SAGARRA

Orokorrean, sagarraren ekoizpena iazkoa baino txikiagoa izan da. Azpimarratzekoa da ekoizpen ona izan duten sagastien multzo handiena Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatu dela, hau da, Asteasu-Adunatik Irun-era bitartean. "Hamahirugarren urtez jarraian, irailaren hasieran Gipuzkoako sagasti ezberdinetan kontrol bat egin genuen sagarren egoera nolakoa zen jakin ahal izateko. Hala, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu genituen eta denera 14 barietate kontrolatu ziren: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzoluta, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria". 2013ko uztaren ezaugarriak hauexek dira:

- 2013 uztako sagarraren heldutasunaren egoera aste bat atzeratu da iazko urtearekin alderatuta.
- Aurten loraldia berandu etorri da eta denboran oso luzea izan da. Udaberria euritsua izan da eta uda lehorra izan dugu, Gipuzkoa barnealdean batik bat.
- Almidoiaren erregresioaren indizea azken hamar urteetako baxuena izan da.
- Lehortekak eta beroak, fruituen erortze garrantzitsua eta sagarren tamaina txikitzea eta beren pisua gutxitzea eragin dute lursail batzuetan, barnealdean batik bat".

Sagardoarena etengabe garatzen eta berritzen ari da sektorea hamabost mila sagarrondoaren landaketarekin, Fraisoroko Laborategiko dastaketa sententzialeko panelaren martxan jartzearekin eta Zubietako Finkako galtzeko zorian dauden sagar barietateen berreskurapenarekin.
www.sagardoarenlurraldea.com

Bidali lagun bati

- Nori:
- E-mail:
- Bidaltzailea:

Bidali

IRITZIA



Hiazio Fernando
[Nik nahiago: Mielak!](#)



Joxe Lizeaga
[Ez gaude kexatzeko moduan](#)



Jon Unanue
[Lurrikara](#)



Ainara Arratibel
[Oreka falta](#)



Bakartxo Iguaran
[Gabonak dira](#)



Igotz Alkorta
[Ez dadila ahaztu](#)



Leire Zubeldia
[Etxeko lanak](#)



Xabier Huitzi Belamendia
[Kantagintza: kantu zaletasunaren trebezia](#)



Garazi Kamio
[Berdintzen](#)



Joxin Azkue
[Euskaldun zintzoak... ustean](#)



Aitor Usandizaga
[Gaur ez dago berriketarik](#)



Aritz Garin
[Txertoak dohainik, gezurrak ere bai](#)



Oihana Iguaran
[Inuxente!](#)



Koldo Jauregi